

Leizarragaren *Kalendrera*. Ariera eta korapiloak

PATXI SALABERRI MUÑOA

**RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT**

De las menos estudiadas de su época y no siempre adecuadamente valorada, la pequeña obra *Kalendrera* (La Rochelle, 1571) es una de las escasas joyas que nos han legado las iglesias reformadas europeas del siglo XVI. Breve y aparentemente sencillo y sin artificio, esta *Kalendrera* o calendario calvinista dispuesto por Joanes Leizarraga se dibuja entreverado de datos diversos y de, a su vez, sutiles carencias de información que bien merecen la atención del lector. Al objeto de iniciar un análisis más exhaustivo de sus fuentes y motivaciones, el presente artículo se propone mostrar la problemática que, tanto desde la perspectiva ideológico-religiosa como desde la estrictamente cultural, concentra el trabajo del beskoiztarra. No es preciso añadir que, para ello, se necesita en primer término comenzar por profundizar en el funcionamiento y comprensión de los mecanismos mismos del *Kalendrera*.

Behar baino gutxiagotan aztertua eta ez beti egokiro baloratua, XVI. mendeko kristau sinesmen erreformatu europarrek utzi duten altxor bakanetako bat da Joanes Leizarragak moldatutako Kalendrera (Arroxela, 1571). Idazlan xume, labur eta, azaletik bederen, ulerterraza izanik, haren bakantasanak nekez ezkuta dezake alderdi guztietatik islatzen duen aberastasuna. Hala ikuspegi ideologiko-erlijiosotik nola kultur baloreei dagokienetik liburuxkak aurkezten duen problematika azaleratzea izango da artikulu honen xedea, lehendabizi Kalendreren barne-mekanismoak eta funtzionamendua argitu behar baditu ere.

Although it has not always been adequately analysed or given the credit it deserves, *Kalendrera* — calendar of religious festivals — (La Rochelle, 1571) by Joanes Leizarraga is one of the most unique treasures inspired by 16th century Christian reformist ideas. The text is brief, simple and at least on the surface, easy to understand. Its uniqueness cannot conceal the wealth it conveys in every aspect. The purpose of this article is to discuss the major issues presented in the book, i.e. the ideological and religious perspective and cultural values, although first we try to explain the mechanism of the *Kalendrera* and how it works.

**PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS**

S. XVI, Calvinismo, Joanes Leizarraga, calendario XVI. mendea, Kalbinismoa, Joanes Leizarraga, egutegia 16th century, Calvinism, Joanes Leizarraga, calendar

Fecha de recepción/harrera data: 18-12-2009

Fecha de aceptación/Onartze data: 08-02-2010

Ez litzateke harritzekoa, begirada iraganera itzultzean, egungo Eirakurleari Joanes Leizarragaren *Kalendrer*¹ deigarrien eta, aldi berean, artegagarrienetakoa ere gertatzea liburuxka klasikoen artean, eta ez bakarrik –nahiz aski arrazoi larria datekeen hori ere– egutegia ulertzeko mekanismoak ongiegi menderatzen ez dituelako. Izatez, interpretatzeko zailtasunik erakusten ez bide duten ataletan udaberria (“Primavera” dio beskoiztarrak) martxoaren 12an kokatuta ikusteak, “Uda” ekainaren 16an, udazkena (“Automnea” dio hark) buruilarren 13an eta, logika berarekin segituz, “Negu hatsea” abenduaren 14an kotsignatuta egoteak ez dirudite, ez, mira-aurpegiak lasaitzeko moduko arrazoi.

Bestalde, liburuxkaren xumetasunak eta egiturak berak ere ez dute lar lagundu halako obrek Europa guztia irauli zuen Erreforma protestantearen barnean izandako eginkizunaz ohartarazten, zeren eta haren tamaina ttiki-laburrak eta, areago, egutegi huts gisa ikusi izanak lantxoaz gehiegi ez arduratzera eraman baitu literaturaren historialaria eta, haren eraginez, baita irakurlea ere. Ahaztu egin zaigu, nonbait, zein izan ziren argitalpen-mota hauen funtzioa, balioa eta itzala XVI. mendeko gizartean. Eta, ohi bezala, gurerantzago eta ahaztuago.

Badu, azkenik, Leizarragarenak azpimarratu beharreko beste alderdirik ere, egutegiaren kontzepzioari dagokiona eta orain arte, guk dakigula, nabarmenarazi ez dena. Alegia, beskoiztarraren *Kalendrer*a delakoa *Testamentu Berriari* hertsiki lotutako egutegia da. Baina ez soilik hori; aldi berean, kalbindar tradizioak finkatu parametroetatik aldenduz, bertan ez da *Testamentu Zaharraren* aztarnarik², ez eta hark suposatzen duenarenik ere: ez Aliantzaren Arkarik, ez Moisesik, ez Noerik, ez Roboamik, ez Jeroboamik, ez faraoirik, ez Kristoren aurreko bestelakorik egutegiratzen du Leizarragak.

Lerro bakanetan bada ere, Kristo da protagonismoaren lekukoa daramana, ebanjelioetako beste pertsonaia nagusiak (amabirjina delakoa eta apostoluak) eta aro berriko pertsonaia historikoak (ustezko santuak eta martiriak barne) lagun dituela.

Kristoren Aliantza Berriko erlijioaren ikuspuntutik, hortaz, ezin zitekeen *Kalendrer*a ez doituagoa izan, ez eta “modernagoa” ere. Orobat, nekez eragotzi dakioko egutegiaren paratzaileari originaltasun-ukituaren faltarik ere, egokitzapen hori dela eta.

1 1571n Arroxelako Pierre Hau(l)tin inprimatzailearenean argitaratua, egun Frantziako Liburutegi Nazionalako alea baino ez omen da geratzen (RESERVE 8-T-5971 Arsenal), nonbait desagertu egin baita Mazarin liburutegikoa (RÉS. 49178). Geratzen den ale bakar horren faksimila da Euskaltzaindiak oraintsu argitaratu duena (Bilbo, 2009).

2 Salbuespen bakarra dago (egutegitik at, egia esateko) eta betiere osagarri kronologiko huts gisara, hots, nahitaezko zuten “Urthen contua” delako ataltxo luteranoa, non “munduaren hatsetic humedrano” igarotako urteen kalkulua eskaintzen baita. Orobat esan daiteke hurrengo pasartean Juduez egiten den aipamenaz.

Baina Leizarragaren hautu horrek, jakina, arakatu beharreko beste dilema batzuen aurrean jartzen du historialaria, *Kalendrer*a osotasunean ulertu ahal izateko eta haren problematikaz jabetzeko faktoreak aurkeztera zuzenduta diren lerro hauek agian argitzen lagun dezaketenak.

1. DENBORA BEZATZEN: EGUTEGIAK

Haien forma xumeagatik besterik lirudikeen arren, Mendebaldeko egutegiek³ funtsezko eginkizuna izan dute luzaroan kultu erlijiosoaren dinamika antolatzeko orduan. Are gehiago, inprentaren laguntza eskergari esker, egutegiok ezinbesteko tresna izan dira erlijioaren inguruko bizimodua taxutu ahal izateko eta,aldi berean, erlijio horretako sinestunek beren betebeharrak egokiro buru zitzaten laguntzeko. Batez ere, bistan da, gizarte tradizioaletan.

Leizarragaren *Kalendrer*ari gagozkiola, beharrezkoa da egun erabiltzen ditugun egutegi egokituen aurreko azken edizioetako bat izan zela azpimarratzen hastea⁴. Ezagun den bezala, egutegiaren “erreforma” hori (ez protestantea, katolikoa baizik –“gregoriarra”–, egokitzapen formalaz ari baikara honetan), 1572ko uztailaren 14an Erromako elizburu izendatua gertatuko zen Ugo Buocompagni elizgizonak burutu zuen Gregorio XIII bilakatu eta gero. Erreformaren derrigortasuna *Inter gravissimas* izeneko buldaren bidez kaleratu zen 1582ko otsailaren 24an.

Haren xedea egutegi julianoaren egun-desfasea gainditzea izan zen eta, halaber, zuzenketarik beharko ez zuen egutegia behin betiko finkatuta uztea⁵. Egokitzapenaren barneko arazoia, baina, erlijioso izan zen guztiz, urte astronomikoarekiko desfase hark lekutik (denboratik, hobe) at utzia baitzuen aspaldidanik kristau festarik garrantzitsuena (Pazkoa)⁶. Ez zen, beraz, profeta zaildua izan behar, arazoari aurre egin ezean, desfaseak biagiagoz jarraituko zuela jakiteko.

3 Egutegi, kalendrer edo almanaka gisara emanak betiere.

4 Gutxi batzuk baino ez ziren izan –eta, egun, geratzen dira – honelako *calendrier*ak kalbinismoaren esparru frantsesean (ikus, besteak beste, Droz 1971 eta 1974, eta Engammare 2004, 2004b eta 2005).

5 Urte tropikoaren iraupenaren zehaztasun ezak ekarritako egun-kopuruaren desfasea izan zen egutegi gregoriarrak orekatu nahi izan zuena, urtearen iraute erreala (365 egun, 5 ordu, 48 minutu eta 45,16 segundu) aintzat hartu ez izanak urteko 11 minutu eta 14 segundu inguru erantsiak baitzizkion Julio Cesarren egutegiari (dozena bat egun gehiago 1582rako). Erantsi behar da hiru mende lehenagotik, hots, 1252an Gaztelako Alfontso X.ak bilarazitako astronomoen *batzarrak* zehaztu zuenetik, ezagutzen zela eguzki-urtearen benetako iraupena.

6 Nizeako Kontzilioan (325) finkatua geratu zen Pazkoa eguna udaberriko ekinozioaren lehen ilbetearen ondoko igandean ospatuko zela aurrerantzean. Alabaina, *décalage* hura zela eta, egutegiaren araberrako ilbete hark nekez egin zezakeen bat konputo astronomikoarekin, gero eta urrunago suertatzen ari baitzen.

Doikuntza gregoriarrak, soberan pilaturik zeuden egunen desagertzea ekarri zuen egutegi katolikoetara eta, horrekin batera, ilargiaren zikloaren kalkuluaren berriztatzea. Pazkoaren ospakizuna parametro astronomikoen bidez araututa geratu zen horrela.

Erreforma-erabakia Erromako elizburuaren buldak agindutakoari jarraituz gauzatu zen esparru katolikoetan (Italia, Espainia eta Portugalen). Modu horretan, ostegunetik ostiralera, urte julianoaren tradizioko 1582ko urriaren 4etik egutegi berriko 1582ko urriaren 15era igaro ziren egutegi guztiak, hamar eguneko desfasea zeharo ezabatuz⁷.

Iparraldeko biztanleei zegokienez, eta hurrengo urteko garizuma eta pazkoa Erromarekin batera ospatu ahal izateko, Frantziako Henri III.ak urte bereko abenduan buruarazi zuen aldaketa, igande batetik (egutegi zaharreko abenduaren 9tik) astelehenera (egutegi berriko abenduaren 20ra), hain zuzen ere⁸. Geneva, bere aldetik, 1700era arte mantenduko zen erreforma onartu gabe.

Horrezaz gainera, egokitzapenaren bestelako efektu praktikoak ere berehala atzeman zituen gizarteak; udaberriko ekinozioa, esate baterako, martxoaren 21era igaro zen. Halaber, bisurteen kontaketa ere egokitua suertatu zen, izan ere, 100 zenbakiaren multiplo ziren urteak ez baitziren bisurtetzat hartuko handik aurrera, salbu eta 400 zenbakiak zati bazitzakeen.

Mendebalde guztira zabalduaz zihoan erreforma hark Leizarragaren *Kalendreraren* balioa ere ukitu zuen, egokitzapenaren premia erakusten baitzuen atal garrantzitsuenetan⁹. Eliza erreformatuek garrantzi gehiago ala gutxiago eman, ez Pazkoa¹⁰, ez Aste santua, ez Garizuma, ez Mendekostea noiz ziren jakiteko balio zuten beskoiztarrarenak. Praktikan, bada, zaharkiturik –hots, baliorik gabe– geratu zen 1582ko abendutik aurrera. Egutegia zokoraturik uzteko lehendabiziko arrazoa –arrazoi nagusia–, ziurrenik¹¹.

7 Anekdotan-mailan, ezaguna da urte hartako urriaren 4an hil eta, hurrengo egunean beharrenean, “hamar egun beranduago” ehortzia izan omen zen Teresa Avilakoaren kasua.

8 Egokitzapena beranduago egiteko agindua zuen Gregorio XIII elizburuak, halere: “il ordonnait de supprimer les dix jours allant du 11 au 20 février 1583” (DelaTour 1999, 375).

9 Bisurteen atala bere hartan kontserba zitekeen bakarrenetakoa suertatu zen, 1600. urtea “zatigarria” baitzen (bisurtea, beraz).

10 Erreforma gregoriarraren ondorioz, hankaz gora geratu ziren *auri nombrea* eta kalkuluak egiteko sistema zaharra. Jakina, 1583ko Pazkoa ere apirilaren 10ean ospatu zen Frantziako eta ez *Kalendrerak* iragarria zuen martxoaren 31n.

11 Horretan guztian egon liteke, beraz, *Kalendrerak* alboratua geratzen hasteko arrazoi praktiko nagusia. Vinsonek, halere, ezin ukatuzkoa den arrazoi ideologiko-erlijiosoa baino ez zuen nabarmendu: “En revanche, le *Kalendrerak* et l’*ABC* ont dû être largement répandus en Basse-Navarre et en Soule; aussi y ont-ils dû être recherchés et détruits, lors de la réaction sous Louis XIII, avec plus de fureur encore que le Nouveau Testament” (Vinson 1891-1898: 1984, 43).

2. KALENDRERA EGUTEGI ERREFORMATU GISARA

Harrigarriro, Leizarragaren *Kalendrera* modu autonomoan kaleratzeko eran argitaratu zen Pierre Hautinen inprimategian, liburuxka beregaina bezala, hain zuzen¹².

Eta “harrigarriro” diogu, zeren bestelakoa ohi zen egutegi protestanteen zabalkuntzarako zegoen ohitura: “La majorité de ces calendriers sont reliés au XVIe siècle déjà avec des Bibles, de simples Nouveaux Testaments ou les Psaumes de Marot et Bèze, en tête ou en queue” (Engammare 2004, 28). Horren adibide ditugu egun ezagutzen diren egutegi gehienak¹³.

Guztiarekin ere, bakarrik eta autonomoki ibiltzeko jaioa izan zela dirudien arren, Vinsonek ezagutu-edo zituen *Kalendreren* hiru aleak autonomoki ibiltzeko zirudien *ABC edo christinoen instructionea* delakoari erantsita agertu ziren¹⁴. Eta horrexegatik hain zuzen kontserbatu ziren, ziur asko. Ezin jakin, beraz, noraino ibili zen liburuxka beregain gisa euskal lurraldeetatik zehar.

Formalki, Leizarragaren *Kalendrera* jai mugikorrek, pazkoa, ilargi berria eta beste hainbat gauza noiz diren jakin ahal izateko egutegi protestantea da, Hus eta Luteroren heriotzen datak eta hainbat saildurena nabarmentzen dituen, baina ez –harrigarriro?– Nafarroako monarkiaren menpekoen eta beskoiztarraren beraren fedeari orkoi propioa eman zion Kalbinena.

Leizarragak egindako ohar bereziren bat kenduta¹⁵, balirudike –lehen begiratuan, bederen– beste guztietan erlijio erreformatuaren ohiko egutegiari segitu diela *Kalendrera*, ***Bazko noiz daten, Ilhargui berriaren eta letra Dominicalaren eçagutzeco manerarequin*** izenburuarekin argitaratu egutegi honek. Hala ereduan nola egituraketa eta informazio funtsezkoetan, Genevan eraikitzen ari zen tradizioaren ume bide zen Leizarragaren liburuxka hau.

Areago, karaktere tipografikoen erabileraren aldetik ere Genevako ereduaren bidea segitzen du oro har, letrakera zuzena, italikoa eta larriak kategoria desberdinetako erreferentziak emateko

12 Data, argitaratze-tokia eta inprimatzailearen izena zituela inprimatu zen, *Testamentu Berria* eta *ABC* delakoa bezala, eta ez, esate baterako, *Testamentu Berriari* erantsiak kaleratu ziren *Othoitzza ecclesiasticoen forma* edota *Catechisme* bezala (ikus Linschmann-Schuchardt edizioa).

13 Horietako bat (*Calendrier historial*, Geneva, F. Estienne, 1567), esaterako, Clement Marot eta Theodore Beze-ren *Les Pseumes mis en rime francoise* musikatuaren amaieran dator erantsirik (ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.fl63.pagination>).

14 “Ce recueil est infiniment rare puisqu’on en connaît seulement trois exemplaires, l’un à la Bibliothèque de l’Arsenal, l’autre chez M.J. Maisonneuve, libraire à Paris, et le troisième entre mes mains” (Vinson 1891-1898: 1984, 42). Nolanahi ere, badirudi ez zirela hirurak berdin argitaratu, bigarrena in-12ko formatuan zegoen bitartean, beste biak in-8 kaleratu baitziren (ikus Vinson 1891-1898: 1984, 42-43).

15 Harena baino ez da buruilaren 23ari dagokion oharra, *Testamentu Berriaren* argitaratze-egunaren berri ematen duena.

baliatuz¹⁶. Baina Engammare-k “l’italique distingue, mais elle ne hiérarqise pas” badio ere (eta hala gertatzen bide da hainbat eta hainbat egutegitan), Leizarragaren tipografiak hierarkizatu egiten du informazioa, garrantziaren arabera sailkatzen du¹⁷.

Horrenbestez, letrakera etzana gai profanoak (kronoastrologikoak) idazteko erabiltzen duen bitartean, beste guztia, jai kristologikoak, santuenak eta konmemorazio historiko-erlijiosoak barne (sinesleentzat “alegiatzkoa” ez dena, azken batean), letrakera zuzenez eskaintzen du¹⁸. Ia anekdotaren esparruan, taulen izenburuetarako eta, nagusiki, hilabeteen izenak agertzeko baino ez ditu erabiltzen letra larriak, letra larri motzak urtaroren bat idazteko (“PRIMAVERA” eta “UDA” besterik ez) eta “EGUBERRI” jaia jakinarazteko uzten dituelarik¹⁹.



1. *Kalendrerá*, Arroxela, P. Hautin, 1571 (or.: *ai r^o)

16 “Cette distinction du sacré et du profane par l’emploi de caractères différents balisera la postérité des calendriers genevois et huguenots français jusqu’à leur disparition dans les années 1680-1690, l’italique étant parfois dévolu à l’un, parfois à l’autre” (Engammare 2004, 39).

17 Garbi baino garbiago atzematen da hori egutegian barrena eta, bereziki, azalean aurkezten duen bereizketa tipografikoaren bitartez, letrakera etzanean ematen baitu bigarren mailako testua.

18 Karaktere zuzenez idatzita izan arren, bereizketa horretatik at geratzen bide dira egutegi erromatarrari dagozkion terminoak (“Calend.,” “Nonae,” “Idus,” etab.). Eta nahiz eta beti pentsa litekeen arlo hori “egitate historiko”-tzat hartua zuela *Kalendrerak*, egiantzekotasun gehiago izango uste luke testuaren argitasunagatik egina dela pentsatzeak.

19 Honetan Baderen antzera jokatzeko Leizarragak: “il n’utilise pas de majuscules en dehors du titre de chaque mois et de celui de l’entrée dans une nouvelle saison” (Engammare 2005, 647).

Orobat, plegu bakarreko lana baino ez da, izatez, *Kalendrera*, hots, zortzi orritan taxututako koadernotxo (azala [*a.i] + a.ii + a.iii + a.iiii + orri horiei dagozkien beste lau zenbatu gabeak)²⁰, bakoitza bere “verso” edo ifrentzuarekin. Ezer gutxi²¹, bada, argitalpen mota honek ordu hartako gizartearen baitan izan ohi zuen eraginarekin konparatuta.

Garaiaren kume, egutegi julianoen ildokoa da kontzepzioaren eta taxuketaren aldetik, bisurtea nola egiten den esplikatzeko duenean erakutsi bezala:

“Bissexta, *urtheco 365 egunez goiti diren sey orenetarie* eguiten da, laur urthetarie laur urthetara: eta orduan otsaillak ditu hoguey eta bedratzi egun: eta hoguey eta laugarren eguna baita F. haren gainean contatzen dirate bi egun, ordinarioa eta emendiozcoa” ([a]i v^o; gurea da letrakera etzana).

Bistan da *Kalendrera* ez zuela soslai astronomiko zehatzik eskaintzeko asmorik, baina, edonola ere, bereganatuta zituen egutegi julianoa eta, ondorioz, hark ordurako sortua zuen desfasea.

Gainerakoan, egutegi xumea da beskoiztarrarena, *eliza drezatu*etako beste guztien antzera, nahitaezkoa besterik ez dakarrena. Iruditan ere, urri samarra, zodiakoaren zeinuak lore-edergailuen barrenean baizik eskaintzen ez duena. Halere, eta paradoxikoki, bere azaleko urritasun horretan aberatsa da aldi berean.

1572an hasita, urte hartan eta hurrengo berrogeita hamaiketan erabilia izateko eginga da egutegia. Epe luzerako egutegia, hain zuzen. Dena den, kasu honetan pazko egunaren zehazpenak 1623an amaitzen badira ere, perpetuo bilakatzeko sortuak ohi ziren egutegi hauek, zinez perpetuoak... baldin hirugarren eta laugarren orrialdeetan taulatan zeuden *auri-nombrearen*, *letra dominicalaren* eta *Bissexta*ren zutabeen seriazioei jarraipena erantsi izan balitzaie... eta, tartean, erreforma gregoriarrik gertatu izan ez balitz.

Hiru zati edo multzo desberdin atzematen dira, oro har, Leizarragak egokitutako lan honetan, hots, batetik, deskribatzaile hutsa den azala (izenburua, datuak eta beste), bestetik bigarren orrialdeko “ADVERTIMENDUA” izeneko oharra (egutegiaren funtzionamenduaz jakinarazten duena) eta hirugarren eta laugarren

20 Ohikoa zen formatu mota hori frantses egutegi protestanteetan: “La plupart du temps, un calendrier compte [...] seize pages: treize pour le titre et les douze mois, trois pages pouvant être dévolues à des pièces annexes. La quasi totalité des imprimeurs ont donc ajouté une ou des préfaces dans les pages liminaires. Uniques, elles expliquent le calcul et l’utilisation du nombre d’or” (Engammare 2004, 41).

21 Urrunxko, beraz, egungo autore zenbaitek argitalpen bat liburu-formatukotzat hartzeko ezinbesteko dituzten berrogeita hamar orrialdeko kopurutik.

orrialdetan barrena zabaltzen den “URTE GUCIEZ IAQUITECO” taula eta, azkenik, hamabi orrialdeetatik zehar hedatzen den egutegia (orrialde bat hilabeteko). Baditu, halaber, bi albiste-multzo bigarren orriaren ifrentzuan, azalari buruz mintzatzean komentatuko direnak.

Baina ikus ditzagun astiroago eta zehatzago.

2.1. Azalaz eta bestez

Egutegiaren azalari gagozkiola, eta izenburu eta izenburupeko eta ohiko argitalpen-erreferentziez gainera, azpimarratzekoa da bertan letrakera xehe etzanez eskaintzen den bigarren mailako testu esplikatiboa:

“Besta deitzen direnetaric-ere batzu eçarri içan dira, ez Igandez berce egun sanctificatzeoric delacotz, baina ferietaco, hartu-emanetaco, eta asco berce gauçataco egun iaquinac eta bereciac dituztenéc cerbitzu dutençat” (ikus 1. irudia).

Testu horren sakoneko esanahia nekez uler daiteke hilabeteetako taulak begien aurrean izan gabe, haietan erakutsiko duen jokamolde berezi eta istilutsu baten zuritze modukoa baita honako hau eskuarki.

Baina alor horri buruzko eremuetan sartu aurretik, gogoan izan dezagun laugarren orrialdean, egutegiaren erabilerarako premiazko ez diren bi kontzeptu desberdinen inguruko informazioa eskaintzen duela liburuxkak jarraian: bata “historikoa” (munduaren kreaiziotik 1571ra arte garatutako kronologia biblikoaren berri ematen duena, hain zuzen), eta denboraren neurketaz diharduena, bestea. Ideologiko-erlijiosoa eta *Bibliaren* bidez baino ezin “egiazta” zitekeena, lehena, eta objektibo-informatzailea, bigarrena.

Lehendabizikoari dagokionez, “Urthen kontua” delakoak zeharo itxita uzten du kronologia biblikoak zientziarekin izan zezakeen erronka, munduak 5.539 urte besterik ez baitzuen Leizarragak bere lantxo hau argitaratu zuenean (ikus ii v^o -ifrentzua):

Munduaren creationetic diluvioraino,	1656 urthe
Diluviotic Moysesganano,	797
Moysesganic Iesus Christganano,	1514
Iesus Christganic hunedrano:	1572
Munduaren hastetic hunedrano.	5539

Agerikoa da ez dela beskoiztarrak berak kalkulaturako kronologia eskaintzen dena, sinesmen protestantearen esparruetan zerabiltena baizik. Hau da, *Biblian* agertu albisteez baliatuz M. Luterok eraikia zuena. Ildo horretan, kalendreran protestanteetan ohikoa zen “Supputation des années depuis la Création du monde jusqu’en 1569,

selon le calcul de M. Luther” izeneko atal bat eranstea²², betiere egutegia kaleratu behar zen urtearen arabera egokitua.

Katoliko erromatarrek ere ez zioten muzin egin kronologia hura erabiltzeari, kalkulua egin zuen heretiko beldurgarriaren izena aipatu gabe bazen ere.

Arrazoa ez dakigula (egutegiaz balia zitezkeen euskaldun ez erreformistenera isilgordean sartzeko agian?), Leizarragak ere ezabatu egin zuen kalkulu-egilearen erreferentzia.

Irizpide desberdina du denboraren neurketaz eta banaketaz diharduen atalak. Izenburua “Urtheaz eta haren partez” izanik, edukia ere garbia eta zehatza du: ezinbestekoa baino ez den informazioa aurkeztu²³:

Urtheco hillebetheac dira hamabi.
Asteac, berroquey eta hamabi eta egumbat.
Egunac, hirur ehun, hiruroquey eta borz, eta sey oren.
Eguna Iuduéc luce baliz labur baliz hamabi orenetara
partitzen çuten, eta goicean çuten hasten. 1 2 3 4 5 6
7 8 9 10 11 12. Eta guc, 6 7 8 9 10 11 12, 1 2 3 4 5 6.

Gehiegizkoa izan gabe ere, honako atal honen pertinentzia ondoren kokatua zetorren egutegiarekin zegoen kateatua, egunek eta gauek hilabetez hilabete dituzten ordu-kopuruen aldaketaren informazioarekin, besteak beste.

2.2. Urte guztien taulaz

“URTE GUCIEZ IAQUITECO” izeneko taulan bost zutabe aurkezten ditu Leizarragaren *Kalendrerak*.

Ezkerraldeko lehendabizikoan (“*Urtén contua*”), 1572tik 1623ra bitarteko datak agertzen dira, harrigarriro agertu ere, 52 urtetako aurreikuspena egiten baita bertan.

Ez zen ohikoa horren urte-kopuru handirik prestatzea garaiko frantses egutegi erreformatuetan. Eskuarki 20-25 bat urterako baino ez ziren egiten²⁴. Leizarragarenak, beraz, nasaiki gaintitzen zituen

22 F. Estienne-ren 1569ko *Calendrier historialetik* jasoa.

23 Leizarragak dakartzan lehen bi lerroak gabe, honela eskaintzen du atal honetakoa Estienne-k berean: “L’an contient 365. jours & 6 heures. Le jour artificiel a xii. Heures, & le naturel xxiii. Les Juifs commencent les heures en ceste maniere, les faisans grandes ou petites, selon que les jours sont grans ou petis. 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 Et nous les comptons ainsi, 7 8 9 10 11 12 1 2 3 4 5 6” (Estienne, *Calendrier*, 1567; ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f177.pagination>).

24 Handik urte batzuetara Leizarragaren editore izango zen Pierre Hau(1)tinek berak 1565ean kaleratu zuen *Calendrier historialean* 1565etik 1586ra bitarteko urteetarako

nekazari gazteenaren bizitza-espektatibak edo, nahiago bada, nekazari-bizitzan egutegi guztia erabiltzeko probabilitatea.

Horretaz galdetzean, zilegizko dirudi pentsatzeak euskal munduaren egoerarekin eta handik atera zitezkeen mozkin urriekin lotuta zihoala mende erdi luzeko aurreikuspen hori. Alegia, edizio garestia izan ala ez, erlijioakideen kopuru mugatuko komunitate euskalduna aski horniturik gera zitezkeen tirada handi (eta, ondorioz, merkeago eta, gainontzeko *calendrier perpetuell*/en antzera, “perpetuoago”) bat eginez gero; eta hori ezin zen lortu urte askoan iraun zezakeen egutegi bat argitaratu gabe. Hitz gutxiagotan adierazteko, horrelako egutegi baten edizioarekin, ez zen luzaroan bestelakorik planteatuko.

Lehendabiziko zutabe horren parean dagoen “*Bazco*” izenekoan, bestalde, urte bakoitzeko Pazko-eguna zein hilabete eta egunetan egokitzen den jakinarazten da²⁵. Gauza ezaguna da bestelako jaiak finkoak diren bitartean (Eguberria, Epifania, etab.), Pazko-eguna eta haren inguruan eratzen direnak aldatu egiten direla urtez urte. Hortaz, *Kalendrerak* horren inguruan ematen zuen informazioa erabilia, hurrengo berrogeita hamabi urtetan jendeak ez zukeen arazorik izan behar urte liturgikoa banatzeko orduan, Pazko-egunaren arabera taxutzen baitira –atzerantz eginez- Aste Santua (aurreko astea), Erramu-eguna (Aste Santu aurreko igandea), Garizuma (Erramu-egunaren aurreko berrogei eguneko epea) eta hausterre-eguna (Pazko-igandea baino berrogeita sei egun lehenago), eta, aurrerantz eginez, Mendekoste jaia (Pazkoa ondoko zazpigarren igandea) eta Igokunde jaia (Mendekoste aurreko hamargarren egunean).

Hori guztia jakinda, egutegi erlijiosoak ez zukeen eraz erabilia izateko eragozpenik erakutsi behar.

Alabaina, gauzak egokiro taxutuko baziren, beharrezkoa zuen eskuinaldeko hiru zutabeetako informazioa ere.

prestatu zituen taulak. Eta ez zuen molestia gehiagorik hartu 1567ko egutegian ere, 1566-1586 epea baino ez baitzuen atondu (edo, hobeto esanda, aurretikotik kopia)tu. Batzuetan izenburuko informazio bezala ematen zen datu hori egutegiaren azalean bertan: “KALENDRIER OU ALMANACH HISTORIAL: *Ou on peut cognoistre d'ici à vingt ans quand il sera Pasques, Lune nouvelle, & autres choses fort requises [...]*” (F. Jaquy, A. Davodeau eta J. Bourgeois, l.g., 1561; gurea da letrakera etzana).

25 - Egutegi kristauean Pazko-eguna udaberriko ekinozioaren lehen ilargi betearen ondoko igandean ospatzen da. Martxoaren 22tik apirilaren 25era bitartean, hain zuzen.

VRTE GVCIEZ IAQVITECO.

Vrtea cõta.	Baizp.	Auri nõ- brea.	Letra Dr- mivicala.	Bajiza.
1605	Aprilean 31	10	F	
1606	Aprilean 20	11	E	
1607	Aprilean 5	12	D	
1608	Martchoan 27	13	C	B
1609	Aprilean 16	14	A	
1610	Aprilean 8	15	G	
1611	Martchoan 24	16	F	
1612	Aprilean 11	17	E	D
1613	Aprilean 4	18	C	
1614	Aprilean 24	19	B	
1615	Aprilean 9	1	A	
1616	Martchoan 31	2	G	F
1617	Aprilean 20	3	E	
1618	Aprilean 5	4	D	
1619	Martchoan 28	5	C	
1620	Aprilean 16	6	B	A
1621	Aprilean 1	7	G	
1622	Aprilean 21	8	F	
1623	Aprilean 13	9	E	

VRTHEN CONTVA.

Munduaren creationetic diluuiorano.	1636 vrthe
Diluuiotic Moysefganano.	797
Moysefganic Iesus Christfganano.	1514
Iesus Christfganic hunedrano.	1572
Munduaren hatfetic hunedrano.	5539

Vrtheaz etabaren partez.

Vrtheco hillebetheac dira hamabi.
 Asteac, berrogey eta hamabi eta egumbac.
 Egunaac, hitur chun, hiruroguay eta borts, eta seyy oren.
 Eguna Iudoec luce baliz laber baliz hamabi orenetara
 partitzen çuten, eta goicean çuten hatfen. 1 2 3 4 5 6
 7 8 9 10 11 12. Eta guc, 6 7 8 9 10 11 12, 1 2 3 4 5 6.

2. Kalendrea, Arroxela, P. Hautin, 1571 (or.: aii v^o)

“Auri nombrea”²⁶ daraman hirugarren zutabea, hemeretzi urteko ilargi-zikloa islatzen duten batetik hemeretzira bitarteko serie numerikoak agertzen dira, 1572. urteari dagokion 15.ean hasita²⁷. Urte bakoitzari dagokion urrezko zenbaki bakoitzak gero, hilabeteetako taulak begiratzean (ezkerraldeko lehen zutabea, hain zuzen), ilargi berria zein egunetan egokituko den adieraziko du.

26 Akatsa da taularen lehen atalean (ii) agertzen den “Anri nombrea”.

27 Urte bakoitzeko urrezko zenbakia jakin ahal izateko, aski da urteari unitate bat gehitzea (hots, urtea + bat) eta 19 zenbakiaz zatitzea (eguzki-urteak eta ilargiarenak 6939 egunetan –hots, 19 urtetan– behin duten kointzidentzi zikloan oinarritzen baita kalkulatu hau). Zatiketaren hondarra da auri nombre delakoa.

Leizarragak berak aurreratzen du kalkulua egiteko modua “ADVERTIMENDUA” delakoan:

“Ilhargui berria cein egunez daten iaquin nahi duenac, bilha beça urte hartaco auri-nombrea hilabethean, eta auri nombrearen heineco letrán daite ilhargui berria” ([i] v°).

Jarraian, noski, “eta handic amorz ilhargui bethea” gertatuko dela erantsiko du beskoiztarrak²⁸.

“*Letra dominicala*” izeneko zutabea lehen zazpi letra larriekin osatua da (hots, A, B, C, D, E, F, G), letra bat urte bakoitzeko. X-XI. mendetik datorren letren erabilera hori eraginkorra da zeharo, urtarrileko lehen igandea zehaztea bilatzen baitu. Horrela, baldin lehen eguna igandea bada, *letra dominicala* A izango da (lehen eguna igandea dela adierazteko). Aldiz, urtarrileko lehen eguna larunbatean suertatuz gero, *letra dominicala* B izango da. Lehen eguna ostirala izanez gero, *letra dominicala* C izango da. Osteguna izanez gero, D, etc.

Horren garrantzia, aurrerago eskaintzen diren hilabeteetako tauletan ikusiko da, eta ere, urte bakoitzaren lehen igandea noiz den atzeman ahal izateko izan, ondorioz, hileko egunak taxutu ahal izateko ezinbestekoa den informazioa baita hori.

28 Hitzetan oparago azaldu zen François Estienne argitaratzailea bere *Calendrier historial* (1567) delakoan: “DU NOMBRE D’OR, POURquoy il a esté inventé, comme on le peut trouver chacun an, & de son usage perpetuel. Le nombre d’or est ainsi appelé, pource qu’il estoit escrit aux Calendriers en lettres d’or, à l’endroit du jour auquel se faisoit la nouvelle lune; & est l’espace de 19 ans ausquels la lune retourne au mesme jour de l’an du soleil. Donc par ceci s’appelle encores le Cycle lunaire, auquel espace & temps les Solstices & les Equinoctes retournent au mesme point du Zodiaque. Et fut trouvé par Methon Athenien, pour avoir le temps certain des saisons & mutations des temps de l’an, & de leurs sacrifices & Olympiades, dernièrement receu du Concile Nicene l’an 323, estant desja descrit & commencé l’an devant, pour avoir le temps certain de la celebration de la Pasque & des autres festes mobiles de l’an: & pour savoir en quel jour se faisoit la lune. Car les Romains escrivoient en leurs Calendriers en lettre d’or le nombre d’or qui courroit en chacun an, à l’endroit du jour de chacun mois, auquel se faisoit la nouvelle lune, ainsi qu’aujourd’huy l’on escrit en autres sortes de lettres en tous les Calendriers. Et ainsi, par ce moyen, encores se peut savoir en tous les mois en quel jour se fait la nouvelle lune, sachant le nombre d’or qui court en chacun an. Et pour le vouloir trouver tous les ans, faut adjoûter tousjours un an aux ans de Christ: pource que Christ nasquit estant desja passé un an des 19. Divisant le pour par 19, ce qui restera sera le nombre d’or de l’an que tu cercheras; & s’il ne demure rien, sera 19. comme par exemple adjoûte à cest an 1567. 1. & pars le tout par 19, restera 11, qui sera le nombre d’or de l’an 1568. Mais pour plus facilement le trouver, nous avons fait une petite table durable à tousjours, avec le millesime, & le nombre d’or qui courra en chacun an: commençant depuis 1. jusques à 19, & retournant à 1. quand sera passé l’an 1576, auquel le nombre d’or est 19, l’an suivant 1677 (sic), le nombre d’or sera 1, & ainsi suivant successivement ceste table servira tousjours” (*Calendrier historial*, 1567, ii v°. Ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6K53627d.image.langFR.fl166.pagination>

Nolanahi ere, begi bistakoa da *letra dominikala* eta *urrezko zenbakia* aski ziratekeela Pazkoa noiz den asmatzeko. Kontuak errazte aldera, dena den, Leizarragarenak, beste egutegiek bezala, zehaztuta dauzka datak.

Bosgarren zutabeari (hots, eskuinekoari) dagokionez, argi da zein den haren funtzioa: “*Bissexta*” (bisurte) noiz den erakustea. Zutabe horretan lau urtetan behin agertzen den letra larriak urte hartako otsailaren 24aren ondoko *letra dominikala* adierazten du, egun bat gehiago azaltzen baita bisurte izateagatik. Beraz, data hartatik aurrera, *letra dominikalen* seriearen aurrekoa egokitu ohi zaio: *letra dominikal* gisa A izanez gero, bisurteagatik G dagokio; G egokituz gero, bisurteak F bilakatzen du, etc. Logikak berak dioena agertzen da *kalendreratua*.

2.3. Hilabeteen taulez

Hirugarren orritik amaiera bitartean dauden orrialdeetan eskaintzen ditu *Kalendrerak* taula interesgarri hauek.

Burutik hasita, letra larritan idatzitako hilabete-izenek erakusten dute, esan beharrik ez da, zein hilabetetan dagoen irakurlea. Hona izenok: URTHARRILLA, OTSAILA, MARTCHOA, APRILLA, MAIATZA, EREYAROA, UZTAILLA, AGORRILLA, BURUILLA, URRIA, HACILLA eta ADVENDUA.

Azpian, lore-entramatu baten erdian, hilabetearen erdialdean eguzkiak zeharkatuko duen zeinu zodiakala agertzen da. Alde batetik, irudia eta, bestetik, irudiari dagokion ikurra.

Lore-entramatuaren azpian eta hilabeteko bost zutabeko taularen gain-gainean, hilabete horretan egunek eta gauek batuz beste izango duten ordu-kopurua zehazten da, betiere letrakera italikoan idatzita, hori baita, gorago adierazi bezala, beskoiztarrak informazio profanoa eskaintzeko hautatu zuen estiloa.

Urtarrilean, adibidez, honela dio: “*Eguna da 9. oren, eta gaua 15.*” (iii); ereiaroan (ekainean), berriz, “*Eguna da 16. oren, eta gaua 8.*” ([v] v^o), etab. Salbuespen (hots, akats) bakarra uztailari dagokio: esaldia amaitu gabe geratu zen testua inprimatzean: “*Eguna da 15. oren, eta gaua.*”

Taula horietan funtsezkoa den informazioa, dena den, bost zutabetan eskaintzen da. Edo Engammarek garaiko *kalendrierez* ari dela dioen bezala: “Quatre colonnes précèdent les mentions bibliques et historiques, telle la mort de Charlemagne le 26 janvier 814, suivant la conversion de saint Paul, le 25, et la mort de Caligula, le 24. On trouve la lettre d’or en chiffres arabes, le quantième en chiffres romains, la lettre dominicale, puis les jours selon le calendrier romain. Ces mentions inaugurent ce qu’on peut qualifier de technicité des calendriers genevois” (Engammare 2004, 41).

V R T H A R R I L L A.



Egunada g. arren, eta gausa 15.

1	i	A	Calend.	Tertio Chritien Circumfionta.
8	ii	b	4	
	iii	c	3	
16	iiii	d	Prid.No.	
5	v	e	Nonz.	
	vi	f	8	Iaunari Epiphania edo Apparitiona.
13	vii	g	7	
2	viii	A	6	
	ix	b	5	
10	x	c	4	
	xi	d	3	
18	xii	e	Prid.Id.	
7	xiii	f	Idus.	Igat gaita Arre- tation.
	xiiii	g	19	
15	xv	A	18	
4	xvi	b	17	S. Antoni.
	xvii	c	16	Protomartirion.
12	xviii	d	15	neguatu erdia lehen
1	xix	e	14	S. Sebastian.
	xx	f	13	
9	xxi	g	12	
	xxii	A	11	S. Vincent.
17	xxiii	b	10	
6	xxiiii	c	9	
	xxv	d	8	S. Paulen comerfi.
14	xxvi	e	7	Charlemaigne egun hunequin luk. Ity.
3	xxvii	f	6	
	xxviii	g	5	
11	xxix	A	4	
	xxx	b	3	
19	xxxi	c	Prid. Cal.	

a-iii.

3. *Kalendrer*a, Arroxela, P. Hautin, 1571 (or.: aiii r°, aiii v°)

Lehendabizikoan, hortaz, *auri nombrea* delakoari dagozkion zenbakiak agertzen dira modu arabiarrean idatzita. Beste serie gisako bat osatuz, zutabe horretako zenbakiak “URTE GUCIEZ IAQUITECO” taularekin egiten dute lotura. Horrela, urteari dagokion urrezko zenbakiak ezin argiago adierazten du noiz izango den ilberria (“eta handi amorz ilhargui bethea”) urte horretako hilabete guztietan.

Arreta handik inprimatutakoa den arren, batzuetan zenbakiak oker jarrita eta inozka zenbakia dagokion lekuti at, egia da zuzendu ez ziren akatsak ere badituela *Kalendrer*ak. Exhaustiboa izateko asmorik gabe, lehendabizikoa urtarilaren lehen egunean dugu (Leizarragaren edizioak “1” zenbakia dakar eta “19” behar luke); orobat, ekainaren hirugarren egunari dagokion urrezko zenbakia nekez izan daiteke “12”, “13” baizik, etab.

Bigarren zutabeari gagozkiola, hilabeteak dituen egunen numerazioa ematen da, hau da, egungo egutegiek gorde duten “quantième” delakoa. Zenbaki erromatarretan betiere,

nabarmentzekoa da modelo sustraktiboa (4 = iv) alboratu eta numerazio zaharraren ildoko (4 = iii) azaltzen dela Leizarraga. Genevako egutegigileen tradizioan²⁹.

Hirugarren zutabearen aste-eguneko serieak azaltzen dira alfabetoko lehen zazpi letra xehekin adierazita. Gorago ikusi “Urte guciez iaquiteco” izeneko taulan agertzen diren *letra dominikalek* finkatzen dute urte bakoitzaren hasierako lehen igandea; letra horrek erakusten du gero, taula honetan, noiz zen igande eta zein aste-egunetan hasten zen urtea.

Laugarren zutabearen, bestalde, aurreko egutegietan ere erabili ohi zen erromatarren garaiko data-sistema agertzen du Leizarragak oro har, hilabete kronologia hiru data nagusiren inguruan harilkatuta. Horrela, *Calend.* hitzak (*calendae, -arum*)³⁰ *calendak* adierazten ditu, hilabete bakoitzaren lehen eguna. *Nonae* (*nonae, -arum*) izenekoek, berriz, hilaren bosgarren eguna adierazten dute, salbu eta martxoan, maiatzean eta uztailean³¹ (hilabete horietan zazpigarren egunean baitziren *nonae*). *Idus* izenekoek dagokienez, hilaren hamahirugarren eguna adierazten dute (martxoan, maiatzean eta uztailean izan ezik³², hilabete horietan hamabosgarrena adierazten baitute). Egokitzapen hori eginda, Leizarragaren egutegian hiru egun horien bezperak *Prid(ie) + No., Id.* edo *Cal.* formularen bitartez azaltzen dira.

Hiru egun seinatu horien aurretik dauden zenbakiek, handienetik txikienera jarrita, egunak zein posizio duen hurrengo egun nagusiaren aurretik adierazten dute.

Eskuin aldeko koadroan, azkenik, jai larrienak, santu zenbaiten izenak, ohar krono-astrologikoak eta arrazoi desberdinengatik gogoratu beharreko diren gauzak ditugu irakurgai. Horiez guztiez jardungo dute ondoko lerroek.

3. KALENDRERAREN HETERODOXIA

3.1. Jaiei buruzko oharrak

Jainkoaren eguna omen den Igandearen garrantzia zela eta, ohikoa zen fede erreformistaren esparruko liturgian sailduen eta martirien izenak eta Maria birjinaren jai gehienak ez jartzea.

Ez da hau horren inguruan sakontzeko tokia, baina gogora bedi protestantismoak ikonoen aurka (Erroma zein Konpostelako peregrinazioen aurka bezala, elizetako irudi eta eskulturen kontra)

²⁹ Erlojuen esferetarako orekatuago zirudien simetria bisualagatik nonbait, Genevako erlojugileen tradizioak nahiago zuen eta, hala, ohiko bilakatu bide zuen “4” zenbakia erromatar eredu zaharrean idaztearena.

³⁰ Hortik, gero, *kalendrera, kalendariora*.

³¹ Egutegi-sistema erromatarrean, Leizarragaren honetan ez bezala, urrian ere zazpigarren eguna adierazten dute *nonae* izenekoek.

³² *Nonae*kin gertatu moduan, erromatar eremuan urriko *idusak* ere hilaren 15ean izaten ziren.

planteatu zuen borrokaren muina arlo espirituala itsutu zezaketen esparru sentsualetatik “eragozpenak” kentzean zetzala nagusiki. Hortaz, sobran zegoen ikonografia guztia, tartean katolikoek hainbeste eta hainbestetan lehenetsi ohi duten sainduen kultu amaiezina bera. Adibide bat ematekotan, Cartier-en *Calendrier historiala* ekar liteke adibide gisara. Beskoiztarrarena baino bederatzi urte beranduago kaleratua (1580), eta oharrez gainezka egonik, santuetan “Conversion de saint Paul. Actes 9” (urtarrilaren 25ean), “La nativité de S. Iean Baptiste” (ekainaren 24an) eta “S. Iean Evangeliste mourut en Ephese, aagé de 89. ans, sours l’empereur Traian, pres de 30. ans apres la destruction de Ierusalem” (abenduaren 27an) jaiak baino ez dira aipatzen. Eta ohar historiko huts gisara, eta santutasunaren kalifikatiborik gabe, irailaren 14ko oharra: “Chrysostome estant chassé hors de son Eglise de Constantinoble mourut”.

Leizarragak, baina, zuhurki –edo ez hain modu ortodoxoan, behintzat– jokatzea erabaki zuen. Ondorioz, liburu-azaleko izenburuaren azpiko ohar gisakoan agertu bezala, “ferietaco, hartu-emanetaco, eta asco beste gauçataco egun jaquinac eta bereciac” zituzten euskaldunen ustezko premien arabera erantsi zituen kalendreran zehar azaltzen diren sainduen jai-egunak. Leizarragak berak dioen moduan, halakoek beren gizarte eta ekonomi bizimoduaren barnean “cerbitzu dutençat” jarri zituen saindu-izen horiek, erabilgarri gerta zekizkien, alegia. Jai garrantzitsuenak baino ez, beraz.

Adibide bat baino ez jartzeagatik, azaroaren 11koa ekar daiteke hona, izan ere, san Martin eguna, besteak beste (eta ez dira gutxi “besteak”: ospe ezin handiagoa Frantzia guztian, etab.), urteko zorrak kitzeko eta kontratuak berriztatzeko eguna ohi zen Iparralde guztian.

Honela geratuko lirateke jai erlijiosook sailkapen moduko bat eginez gero:

Batetik, Jesukristori dagozkion jaiak ditugu, lau baino ez, alegia: “Iesus Christen Circoncisione” (urtarrilaren lehenean), “Iaunaren Epiphania edo Apparitionea” (hilabete bereko 6an), “Iesus Christen Transfigurationea” (agorrilaren 6an) eta, azkenik, Kristoren bizitzan kronologikoki lehena behar zuen “EGUBERRI” jaia³³ (abenduaren 25ean).


Bi gehiago dira Kristoren amari dagozkion jai-aipamenak: “Maria virginaren Purificationea” (otsailaren 2an), “Maria virginaren annuntiationea” (martxoaren 25ean), “Maria virginaren visitationea” (uztailaren 1ean), “Maria virginaren Assumptionea” (agorrilaren

³³ Ohartaraztekoa da, aurrerago ikusiko den bezala, azken hitz hau letra bertsaletan idatzia eskaini zela, PRIMAVERA eta UDA hitzak bezalaxe.

15ean), “Maria virginaren nat(ivitatea)” (irailaren 8an), “Maria virgina” (abenduaren 8an).

Familiaren argazkia osatze aldera, Kristoren aita putatiboak ere badu bere tokia (berau ere ezohikoa egutegi erreformatuetan) martxoaren 19an: “S. Ioseph”.

AGORRILLA.



Eguna da 14. *xxxv*, eta gaur 10.

13	i	c	Calend.	S. Pierrien cadena.
12	ii	d	4	
	iii	e	3	
10	iiii	f	Prid.No.	
	v	g	Nonz.	
10	vi	A	8	Iesus Christen Trifigurationea.
7	vii	b	7	
	viii	c	6	
15	ix	d	5	
4	x	e	4	S. Laurent.
	xi	f	3	
12	xii	g	Prid.Id.	
1	xiii	A	Idem.	<i>Igit, quia Virgines.</i>
	xiiii	b	19	
9	xv	c	18	Maria virginaren Afsumptionea.
	xvi	d	17	
17	xvii	e	16	
6	xviii	f	15	Egun lurrequin hascedin Euangelioaren arauzaco reformationea Geneuaco ciuitatean. 1535.
	xix	g	14	
14	xx	A	13	
3	xxi	b	12	
	xxii	c	11	
11	xxiii	d	10	
	xxiiii	e	9	S. Bartholome.
19	xxv	f	8	
8	xxvi	g	7	
	xxvii	A	6	<i>Egun conicalarac hemon Arabarzen.</i>
16	xxviii	b	5	S. Ioannen decolationea.
5	xxix	c	4	
	xxx	d	3	
13	xxxi	e	Prid.Cal.	

4. *Kalendrer*a, Arroxela, P. Hautin, 1571 (or.: *vi v°)

Santuei-eta dagozkien jaiak gehiago dira, nahiz eta ez, egutegi erromatarretan bezala, egun bakoitzeko bat.

Multzokatuz gero, *Testamentu Berriko* pertsonaia nagusiak genituzke lehenik: “S. Ioan Baptistaren sortzea” (ekainaren 24an) eta “S. Ioannen decolationea” (dekapitazioa, alegia, abuztuaren 29an) eta apostoluak: “S. Pierris” (otsailaren 22an: *Vetus Ordoren* arabera egun horretan ospatzen zen lehen elizburuaren Katedra), “S. Pierrisen cadena” (abuztuaren lehenean), “S. Pierris eta S. Paul” apostoluen

martirio-eguna (ekainaren 29an), “S. Andriu” (azaroaren 30ean), “S. Iacques” Zebedeorena (uztailaren 25ean), “S. Philip. eta S. Iacques” (maiatzaren lehenean), “S. Bartholome” (abuztuaren 24an) eta “S. Matthias” (otsailaren 24an). Ebanjelistetan, berriz, “S. Ioan” (bi aldiz, ospatua, hots, abenduaren 27an eta maiatzaren 6an, azken hau dagoeneko santoraletik ezabatua dagoen jaia: «ante Portam Latinam» gertatutako “mirakulu”-aren omenez), “S. Marc” (apirilaren 25ean), “S. Luc” (urriaren 18an) eta “S. Mattheu” (irailaren 21ean). Era berean, *Testamentu Berriaren* eta *Apostolu Sainduen Akteak* liburuaren arabera apostolu bezala hartutakoak ere aintzat jotzen dira *Kalendrerarako*: “S. Paulen conversi(onea)” (urtarrilaren 25ean) eta “S. Barnabas”(ekainaren 11n)³⁴.

Bigarren multzoan, berriz, Elizak santifikaturikoak jar litezke, hala nola “S. Antoni”, “S. Sebastian”, “S. Vincens”, “S. Blasi”, “S. Leon”, “S. Georgi”, “S. Quiteria”, “S. Marcial”, “S. Anna”, “S. Laurens”, “S. Ciprian eta s. Crutze”, “S. Miqueu”, “S. Denis”, “S. Martin”, “S. Catherina”, “S. Barbara”, “S. Nicolas”, “S. Lucia”, “S. Thomas” (ez apostolua, Canterburyko Thomas Becket baizik), “S. Esteben”, “Omnium sanctorum” eta “Innocentac”.

Konstantinok 326an zeruan ikusitako gurutzea eta “In hoc signo vinces” ospetsu haiek eraginda burutu zen kristau gurutzearen aurkikuntzaren egunak ere bere tokia du *Kalendreran*: “S. Crutze” (maiatzaren 3an). Gorago ikusi legez, gurutzearen gorespen-jaiak ere bere eguna du irailaren 14an.

Azkenik, santutasunaren kalifikatibo gabe agertu ohi den “Maria Magdalena”-ren jaia genuke (uztailaren 22an).

Jakina, jai garrantzitsu horiek guztiak kultu erlijiosoarekin lotuak dira, baina lehenago aurreratu bezala, *Testamentu Berriari* eta handik hona eliza kristauak egindako ibilbideari hertsiki atxikiak,aldi berean. Eta gainontzeko egutegi protestanteetan ez bezala, *Itun Zaharrak* ez du tokirik Leizarragaren *Kalendreran*, ez Moisesen legeak, ez Noek, ez eta Jerusalem mitifikatuak ere.

Bestalde, bere hartan harturik, egutegi “katoliko”-tua prestatu nahi izan zela irudi lezake lehen begiradan, kalbindarren joera ikonoklastaren aurka, santuen zerrenda luzea eskaintzen baitu beskoiztarrak. Bistan da, dena den, arrazoi praktikoak (ekonomikoak, batik bat) darabiltzala Leizarragak hautua zuritzeko.

3.2. Data gogoangarriak

Aurreko atalean ez bezala jokatzeko du Leizarragak honako honetan. Izatez, *Kalendrerak* ere, garaiko beste egutegi erreformatuen antzera, hainbat data historiko ospetsu eskaintzen ditu tauletan, normalean

³⁴ Apostoluen artean, lehen begiratuan atzeman daitekeenez, Juan Zebedeorena, Tomas “Didimo” eztabaidatua, Simon “Zelotea” eta Judas Tadeo falta dira.

erlijio-arrazoiengatik gogorazai behar bide zirenak³⁵. Ez dira hamar bat izatera iristen, dena den.

Nonbaitetik hasi behar eta, hark euskaratutako *Testamentu Berriarekin* zerikusia duena da, ziur asko, egungo irakurlearentzat deigarriena eta, aldi berean, beskoiztarrak idatzitako original bakarra. Izatez, irailaren 24ko egunaren parean honako ohar hau erantsi zen: “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu 1571”. Bistan da fede erreformatu berrian izan eta izango zuen garrantziagatik kalendreratu zela, eta ez bestegatik. Ohar historikoa, baina era berean esanahi erlijioso nabarmena zuena euskal eliza “drezatu”-arentzat.

Horrezaz aparte, badira beste hainbat ohar historiko interesgarri. Bakanen batek, harrigarrienak nonbait, interes historikoa baino ez bide du. Halakoa dirudi, esaterako, martxoaren 25ekoak: “Egun hunequin Venetia edificatzen hasi içan cen, 421”.

Arreta berezia eskatzen du urtarrilaren 26ko ohar historiko huts dirudienak³⁶: “Charlemaigne egun hunequin hil. 815”³⁷. Izan ere, Karlomagno 814ko urtarrilaren 28an hil zen³⁸, eta ez 26an, egutegi erreformatu guztietan agertu legez. Handik 350 urtera (1165ean) “antipapa”-tzat hartua izan zen Pascal III.ak santu bilakatu zuen. Antza denez, Eliza erromatar ofizialak inoiz ez zuen kanonizazio hura zalantzatan jarri, baina nahiago izan zuen santuen zerrendatan gehiegi ez nabarmentzea. San Charlemaignerren aldeko kultua erdi toleratua izan zen, harik eta Benedictus XIV.ak, beato gisa hartzean, nolabaiteko onespén ofiziala eman zion arte.

Erljioari zuzenean dagozkion aipamen garbiak dira, halere, gainontzekoak. Alegia, fede erreformatua hasi baino lehenago ditugu uztailaren 9koa (“Egun hunequin Constanceco Concilioan erre içan cen Ioanes Hus Evangelioo eguiaren sustengatzeagatic, 1415”) eta maiatzaren 29koa (“Egun hunequin har ceçan Mahomet bigarrenac Constantinopleco hiria, 1453”).

35 *Kalendreraren* kasuan ez dago hain garbi Drozek frantses egutegi kalbinistetan antzematen uste duena: “des notions historiques [...] qui n’ont rien à voir avec la religion” (Droz 1974, 26). Gurean ere bideratuago lirudike Soulié-rek ikuspuntuak: “mais si ces rappels historiques nous paraissent hétéroclites ils ont une signification théologique précise” (Soulié 1980, 171).

36 Mendebaldeko eta ekialdeko elizen arteko bereizketaren erreferentzia implizitua egon liteke frankoen enperadorearen heriotzaren aipuan, esan ohi baita *kredoan* “filioque” klausula sartzearen aldeko borrokatzaile sutsua izan zela Karlomagno Akisgrango Kontzilioan (809an), Leon III elizburuak formula ezabatzearen alde egin zuenean. Mendebaldeko kristau gehienak biltzen dituen aitorten hori, ezaguna den bezala, gero Ekialdeko Zisma izenekoaren aurrekaria izan zen. Hortik, agian, Leizarragaren egutegian eta gainarakoetan agertzearen balio sinbolikoa.

37 Dakigunagatik, 814an hil zen Karlomagno, eta horrela dator kontsultatu ahal izan ditugun *Calendrier* zenbaitetan ere. Salbuespenetako bat F. Estienne-k 1567an kaleratutakoan dago: “*Charlemaigne trespassa, l’an 815.*”.

38 San Charlemaigne-ren eguna urtarrilaren 28an ospatu izan du santoralak. Hala dator, esate baterako, 1496ko *Compost et Calendrier historial* delakoan.

Garaikideago eta agian erlijio erreformatuarekin lotuago dira ondoko oharrak: urriaren 31n “Egun hunequin 1517. M. Luther has cedin indulgentia Papalezco enganioaren aguertzen”; abuztuaren 18an “Egun hunequin has cedin Evangelioaren araezco reformatione Genevaco civitatean. 1535” eta otsailaren 18an “M. Luther egun hunequin hil, 1546”.

Edozein modutan ere, euskaldunentzat interes historiko-erlijioso hurbilagokoa (eta simbolikoagoa) du, zalantza gabe, maiatzaren 6koak: “Egun hunequin Borbonec har ceçan Roma, 1527”. Bistan da Frantziako botere politikoa Erromaren aurka altxaturik erakustea zela xedea eta, zeharka bederen, Albreteko Joana erreformatzailea borroka erlijiosoan inplikatu³⁹.

BVRVILLA.



Egana da 12. orri, eta gusa 12.

			Calend.	
1	i	f	4	
10	ii	g	3	
	iii	A	Prid.No.	
18	iiii	b	Nonas.	
7	v	c	8	
	vi	d	7	
15	vii	e	6	Maria virginari nat.
4	viii	f	5	Ierusalenc egun ho-
	ix	g	4	nequin arraisa 73.
13	x	A	3	
1	xi	b	Prid.Id.	
	xii	c	Idus.	Autissa leman hartze.
9	xiii	d	18	S. Cipriã eta f. Cruze
	xiiii	e	17	
17	xv	f	16	
6	xvi	g	15	
	xvii	A	14	Igaqueia Libran.
14	xviii	b	13	
3	xix	c	12	
	xx	d	11	S. Matheu.
11	xxi	e	10	
	xxii	f	9	
19	xxiii	g	8	Egun hunequin Te-
8	xxiv	A	7	flameta bernia Heu-
	xxv	b	6	scaran lehenic impri-
16	xxvi	c	5	mitzetn acabatu 1571.
5	xxvii	d	4	
	xxviii	e	3	
13	xxix	f	2	S. Miqueta.
2	xxx	g	Prid. Cal.	

5. Kalendrea, Arroxela, P. Hautin, 1571 (or.: *vii rº)

Leizarragaren joera data historiko-erlijiosoekiko, ikusten denez, ez da naroa (ez, behintzat, fede bereko egutegi gehienetakoa bezainbeste), baina bai, urritasun horretan, zehatza eta adierazgarria.

39 Nafarroako erreginaren aitagarreba zen, Borboi borrokazale harengandik duke titulua heredatu zuen Karlos izenekoa.

Kalendrerak badu, halaz ere, gabezia gisako bat atal honetan, argitaratu zen garairako bitxiago bilakatzen duena: bertan ez da kalbindarren buruaren heriotza-eguna aipatzen. Ezaguna den bezala, Kalbin 1564ko maiatzaren 27an hil zen eta *Kalendrerak*, aldiz, 1571ko datarekin inprimatu. Oharra jasotzeko asti-faltari, beraz, zail lepora lekiok errua.

3.3. *Ohar krono-astrologikoak*

Ez dugu berriz errepikatuko letra bertsaletan eman zituela beskoiztarrak *PRIMAVERA* eta *UDA* hitzak eta letrakera etzanez larrazkeneko aipua eta neguarena⁴⁰.

Goian aurreratu eran, alor profanoko oharrek letra etzanez jarri zituen Leizarragak. Edonola ere, “krono-astrologiko” bezala izendatu ditugunak bai hemen aztertzen ari garen koadroen barnean aurkitzen dira, eta bai, koadro horien gainean, hilabete bakoitzeko egunen eta gauen luzerari buruzko informazioa eskaintzen.

Oro har, Zodiakoaren zeinuei buruzkoak dira koadroen barneko ohar krono-astrologiko horiek eta urteen hasiera-amaiezez eta urtaroez dihardutenak. Azken hauetakoak dira, esaterako, urtarrilaren 18koa:

“Ptolomeoren araura; neguaren erdia hemen”

eta otsailaren 8an:

“Primauera Romanoèc hemen hatsen Plinec dioenaz”

Informazio miszelaneoaren arlokoa da, orobat, ekainaren 10ekoa:

“Urtheco egunic lucena”

abenduaren 12koa

“Urtheco egunic laburrena”

edo uztailaren 18koa:

“Egun hunetariec Egyptioèc urthea hatsen dute Plinec dioenaz”

Bizitzarako garrantzi gehiagokoak ziren, bestalde, uztailaren 20koa:

“Egun Canicularac hemen hatsen”

Eta abuztuaren 27koa:

“Egun canicularac hemen acabatzen”.

Aurrekoetan ez bezala, otsailaren 24an guztiz premiazkoa zen bisurtearen oharra egitea:

“Bissextaren lekua”⁴¹

40 Larrazkeneko oharra eta negukoa letra etzanez eman ziren, beste ohar krono-astrologiko arrunt guztiak legez: “*Automnea hemen hatsen*” ([vii]) eta “*Negu hatsea*” ([viii] v°). Jokabide horretaz galdetzean, nekez jakin liteke oharkabean iragandako hutsa izan zen ala berariaz markatutako bereizketa, ez baita, izan ere, Leizarragarenean bakarrik agertzen den “arazoa” (adibidez, literalki desmarkatua geratzen da “*automme*” delakoa Estienne-ren 1567ko egutegian).

41 *Locus bissexti* esan ohi zitzaion martxoaren kalendetarako seigarren honi.

Ohar guztietatik, eta hasieran aipatu den salbuespena eginik, bat bera ere ez dago egutegi erreformatuetan agertzen ez denik⁴². Leizarragak atal honetan ohiko egutegiei segitzea baino ez zuen planteatu, inolako ohar berririk eman gabe. Egutegi erreformatuetatik zerbait aldentzen diren oharrak neguari eta udazkenari dagozkienak dira, hitzak biluzik eman beharrean, haietan bezala, beskoiztarrak nolabaiteko testuinguru sintaktikoan kokatzen baititu. Hau da, irailaren 13an,

“*Automnea hemen hatsen*”.

eta abenduaren 14an

“*Negu hatsea*”.

Gainerakoan, Leizarragaren egutegiak eguzkiaren ibilerari dagozkion ohar astrologikoak ere jasotzen ditu egutegi erreformatuetatik, hitzez hitz jaso gainera. Zodiakoaren erreferentziak ditugu guztiak, “Iguzquia” non dagoen adierazten dutenak: *Iguzquia Aquariussean* (urtarrilaren 13an), *Iguzquia Piscesean* (otsailaren 12an), *Iguzquia Ariesean* (martxoaren 11n), *Iguzquia Taurusean* (apirilaren 11n), *Iguzquia Geminean* (maiatzaren 12an), *Iguzquia Cancerean* (ekainaren 15ean), *Iguzquia Leoan* (uztailaren 15ean), *Iguzquia Virgoan* (abuztuaren 13an), *Iguzquia Libran* (irailaren 18an), *Iguzquia Scorpiusean* (urriaren 11n), *Iguzquia Sagittariusean* (azaroaren 12an) eta *Iguzquia Capricornusean* (abenduaren 9an).

Erraz ikus daitekeenez, egungo egutegia baino hamar egun aurreratuago agertzen da kalbindarrarena zodiakoari eta urtaroen haste-amaiereri dagokienez. Gogoratu beharrik ez dago egutegi-sistema julianoak sorrarazitako desfasean datzala horren arrazoia.

Nolanahi ere den, ikusia dugu ez dela horretan amaitzen *Kalendreraren* informazioa. Esan bezala, hilabete bakoitzari dagokion taularen buruan, eta hilaren izenaren azpian dagoen lore-hornidura baten barruan, Zodiakoaren zeinu bakoitzaren animala irudikapena dator, eta, aldi berean, bakoitzaren zeinu estilizatua edo ikurra:

⁴² Adibide gisara, erka bedi Leizarragaren atal honetako oharrak Estieneren 1567ko *Kalendrierak* erakusten dituenekin, ia guztiak agertzen baititu inprimatzaile frantziarrak.



6. *Kalendrera*, Arroxela, P. Hautin, 1571.
(Orrialdeak: aiiii v^o, *v r^o, *vi r^o, *viii r^o, *viii v^o)

Kalendreraren mekanikak eragozpenik aurkezten ez badu ere, larriak dirudite edukiaren aldetik Leizarragak egin zituen hautuek, hautu pertsonalak nonbait eta, aldi berean, egutegiari ukitu berezia eta nolabaiteko originaltasuna ere ematen zizkietenak.

Egutegi erreformatuen baranoan ohiz kanpokoa, *Testamendu Zaharra*/ren eta hebrearren erabateko absentzia da *Kalendrer*a, susmagarri bainoago, berezi bihurtzen duen lehena. Ezertan ez du oinarritzen ez justifikatzen beskoiztarrak, erlijio-kideek, zeinek bere egutegian eta salbuespenik gabe, daramaten praktikaren hausketa. Beste esplikaziorik ezean, mende erdi luze lehenago Iberiar penintsulatik bezala Nafarroatik ere jaurtikiak izan ziren judutarrekiko gizarte-jarreraren baten isla izan ez ote zen planteat liteke hipotesi bezala.

Horrekin batera, baina jarrera berberarekin lotuta ez dagoelarik, nabarmentzekoa da Leizarragak bere egutegian santu-aipamenetarako duen –diogun erdipurdi– zaletasuna. Berariaz azpimarratu nahi izan dugu hark, ustezko arrazoi praktikoak direla eta, azalean bertan zuritzen duen hautu hori, ez baitu nonbait jokabide horretan inolako erlijio-eragozpenik antzematen, nahiz eta ortodoxia kalbindarrak besterik zuen adierazita.

Gainerakoan, *Kalendrer*a egutegi austeroa da zeharo, xumea xumeen artean, orri-kopuru mugatua eta ondo aprobetxatua duena. Ez du aparteko apaingarririk azalean, liburuari buruzko informazio hutsaz gain. Era berean, orri-buruetako edergailuetatik kanpo, ez du irudirik eransten hilabete bakoitzean egin behar izaten ziren lanez edota jolasez, hain zuzen ere, hori bera izaten zenean egutegiak erakargarriago bilakatzeko teknika.

Alabaina, egutegiaren sinpletze-idortze horrek propaganda arloan galarazi zezakeena beste modu batez konpentsatua geratzen zen, izan ere, merkeagotu egiten baitzen horrela edizioa bera eta, ondorioz, saltzeko ziren aleen prezioa ere bai.

*Kalendrer*ak egutegi gisa dituen ezaugarriak laburtu beharko balira, ezinbestekoa litzateke, gutxienez, honako hitz hauek ekartzea: arreta handiz taxutua eta burutua, zuzena, argia, orekatua, informazioa ezin hobeto antolatzen duena (harrigarria dirudien arren, ia ez zegoen garaiko merkatuan koadroak, zutabeak eta espazioak *Kalendrer*ak bezain zorrotz eta garbi bereizten zituen ediziorik), oso epe luzerako egina (52 urterako), praktikoa (1582rarte, bederen) eta, gordetzen den ale bakarrak islatzen duenez, baita, tintaz eta kalitatez, ongi inprimatua ere.

Eliza drezatuaren presentzia eta oinarritzko mezua XVI. mendearen akaberako euskal gizartean hedarazteko egokia, beraz.

ERABILITAKO
EGUTEGIAK

Compost et Calendrier des Bergiers, 1496, Paris, Guiot Marchant (orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1112582.image.fl.langES>).

[*Kalendrier historial*, 1555, Geneva, Conrad Bade] (lehen orriak faltan dituen egutegia).

Kalendrier ou almanach historial, 1561, l.g., Jaquy, A. Davodeau eta J. Bourgeois.

Calendrier historial, 1567, [Geneva], F. Estienne (C. Marot eta Th. Beze: *Les Psaumes mis en rime françoise* liburuari erantsita; ikus: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.fl63.pagination>)

Calendrier historial, 1569, Geneva, François Estienne.

Kalendrera, 1571, Arroxella, P. Hautin. Itzulpen-egokitzapena: J. Leizarraga (orain faksimila X. Kintanak prestatutako edizioan, Bilbo, 2009).

Calendrier historial et lunaire, 1580, l.g. (Geneva), Gabriel Cartier.

BIBLIOGRAFIA

DELATOUR, J., 1999, “Noël le 15 décembre: la réception du calendrier grégorien en France (1582)”, *Bibliothèque de l'école des chartes* 157, 369 – 416.

DROZ, E., 1971, “Le calendrier genevois, agent de la propagande” in E. Droz: *Chemins de l'hérésie. Textes et documents*, Geneva, Slatkine, II, 433-456.

DROZ, E., 1974, “Le calendrier lyonnais”, in E. Droz: *Chemins de l'hérésie. Textes et documents*, Geneva, Slatkine, III, 1-29.

ENGAMMARE, M., 2004, “La mise en page des calendriers réformés (mi-XVe - fin-XVIIe siècle)”, in A. Charon, I. Diu eta É. Parinet (testu-biltzaileak): *La mise en page du livre religieux XIIIe - XIXe siècle. Actes de la Journée d'Étude de l'Institut d'Histoire du Livre organisée par l'École Nationale des Chartes (Paris, 13 décembre 2001)*, Paris.

ENGAMMARE, M., 2004b, *L'ordre du temps: l'invention de la ponctualité au XVIe siècle*, Geneva.

ENGAMMARE, MAX, 2005, “Un chaînon manquant: Le *Kalendrier historial* de Conrad Bade (1555)”, in *Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance*, t. 67, 641-652.

JOSTOCK, I., 2007, *La censure négociée: le contrôle du livre à Genève, 1560-1625*, Geneva.

SALABERRI, P., 2007, *Leizarraga Zaharra, Leizarraga gaurkoa*, l.g., Erroteta.

SOULIÉ, M., 1980, “Littérature populaire et propagande de la Réforme”, *Bulletin de l'Association d'Étude sur l'Humanisme, la Réforme et la Renaissance* 11-2, 167-174.

VINSON, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (I eta II)*, Donostia.